




ZAILA

ATHARRATZE-SORHOLÜZE

Maidalena



Distantzia 13,5 km	Desnibela 960 m	Iraupena 6h30	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR seinale horiak
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---------------------------------------

Atharratzeko plazara joan. Farmaziatik hurbil, erdiko karrikara joan eta kirol gelaraino xuxen segitu pilota plazaren saihetsetik pasatuz. Autoa, bide bazterrean den aparkalekuan utzi.

GPS datuak: **UTM : 674324 - 4775778 Lat/Long : 43.11468 - 0.85732**

Ibilaldia oso zaila da baina kaskoan den 360°ko panorama zabalak 1000m-ko desmaila ahantzazaziko digu. ùhaitza ibarra, Pirinio, Ozeanotik Bigorrako Pic du Midi arte, sekulako bista bada. Ibilbidean zehar, ingurune biziki ederrak bata bestearen ondotik heldu dira. Iraleku zabalaren ondotik, lehen kasko batera igotzen gara, Erretzü bere tontor luzearekin, Zützarriko lepora berriz jaitzi aitzin, hau Atharratze eta Barkoxeren artean kokatua delarik. Urrian ehizarako usategi anitz okupatuak dira. Maidalenarantz joaterakoan, saldoen artean gain-ordoki zabal batean pasatzen gara. Kaskoan, ez ahantz kaperaren bisitaztea, aldare botiboa eta Xiberoko elizen ohiko galeriak baititu. Orientazio mahaiari esker Pirinioetako kasko garrantzitsuak atzeman daitezke : Orhi, Auñamendi, Midi d'Ossau ...



1. ZATIA > Kirol gelatik abiatzea


UTM : 674324 4775778

Itzalean eta goxo den bide txiki hori segitu. Etxeberrirerka segitzen du. Zubi txiki baten ondotik bidegurutze batera iristen gara. Ezkerrean Erretzütik jaisten den bidea utzi eta 100m-z xuxen segitu. Harrizko bidexkaren hartzeko ezkerrean joan. Bihurgune eta itzalgune batzuen ondotik, bidexka iraleku zabal batera iristen da. Xuxen segitu parean duzun Erretzüko tontorrari so. Ezkerreko mendi-mazelan den bidexka eta alimaleko haritza ontsa so egin. Ibilaldiaren helburuaren gainean ere bista ederra bada: Maidalenako kaskoa. Tontorretik igo.

2. ZATIA > Erretzüko tontorra 700m

UTM : 676612 - 4776750

Gailurrean segitu bigarren mailako tontorrera iristeko (696m). 360°ko bista harrigarria Auñamendiko mendigune eta Biarnoko eta Basabürüko mendien gainean. 50m-z gibelera itzuli eta iralekuan den bidexka belartsura iristeko eskuin jaitzi . Bidexka, lehen tontor azpitik pasatzen da lepo belartsura jaisteko: Lozereko lepoa. Mendixka berriz igo eta usategien ondora behera joan. Etxola eta gero, belarrean xuxen segitzeko eta D347 atzemateko eskuineko eta ezkerreko pistei ez kasurik eman.



3. ZATIA > Zützarriko lepoa

UTM : 676198 - 4777946

Maidalenako bidean, 50m-tan hurrondoan aspiko bidexka hartu eta xuxen goiti joan. Lehen bidegurutzean, xuxen segitu. Gorago, ezker hartu eta Maidalenako bide txikia atzeman. Goxoan igotzen den bidea jarraiki. Bihurgune handi bat moztu larretan eskuin hartuz. Bidea atzeman, zeharkatu eta berriro moztu gain-ordoki belartsu batera iristeko. Uraska baten ondotik pasatu. Kaskorantz joan eta agerian den bidexka batetik zuzenean goiti joan.

4. ZATIA > Maidalenako kaperera

UTM : 675297 4779428

Bidea hartu eta lehen bihurgunean, gurutzaren heinean, bidea utzi gutxi ikusten den bidexkatik jaitzi. Pista bat zeharkatu eta iraleku batera iritsi aitzin, hurrondoan itzalera doan bidexka bat hartu. Seinale paldoak segitu, eta Etxebestea etxalderaino segitzen duen pistara jaitzi. Eraikinen artean ez ibili baina segidan bidera doan bidexka eskuin hartu. Bidea jarraiki. Begi ùthürriko gurutzea pasatu eta hilerri ondoko zubiraino segitu.

5. ZATIA > Hileritik hurbil den zubi txikia

UTM : 673527 - 4776388

Malda hartuz, D918-aren bidez herri barnerantz joan. Plazaraino karrika nagusia segitu, eta kirol gelako aparkalekura arte jarraiki.

INTERES GUNEA

❖ Aldare botiboa

Kaperaren barnean, III. mendeko, erromatar garaiko harri baten kopia atzeman daiteke. Hau jaingo ezezagun batentzat egina izan zen. Egiazko harria, Atharratzeko plaza ondoan, "Herauskorritxe" euskal mitologiaren interpretazio gunean atzematzen da. Jaingo misterioitsu horren izena euskaratik heldu da. "Errauts gorri" erran nahi luke. Iduiz Herrautsorritze, Jupiter bezala, haize-gaiztoaren jaingo bat zen.

UTM : 675297 - 4779428

❖ Arhaneko lur meta

Kaskora iritsi baino lehen zeharkatzen den ordoki zabalean, alimaleko Pirinioen mendi lerroaren parean lerrokatutik diren sei lur-meta nekropoli bat agertzen da. Nekropoli hori herriko Herraucoritsche aitzin-erromatar jaingoaren omenez egindako gurtza garaikidea izan daiteke. Kaperari eta tokia hartu dion erromatar santutegiari doakienez, haiekin jadanik tontor hau saritzen zuten gune protohistoriko baten gainean eraikiak izan dira. UTM : 675921 4779350

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

- Ibilbide hau ez da gomendatua uso ehizaren garaian, 10/01etik 11/15era

- Artzain eremua : hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Atharratzeko Herauskorritxe interpretazio gunea bisitatu. Gune horrek euskal mitologiari buruzko legendak tratatzen ditu, bideo, marrazki, zizelkadura eta soinuen bidez. Bisita ibilbidea librea da



Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurrpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitetzela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitetzela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitetzela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarritueta.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitetzela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezaketek!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- ATHARRATZE
Arhanpia karrika
+33(0)5 59 28 51 28
- MAULE
Jean-Baptiste Heugas karrika
+33(0)5 59 28 02 37

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗